

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



BELA ERRUKIORRA

Kikuyu'tarren artean gizon aberats bat bizi zan: Ardi eta euntz asko eukazan. Orregaitik euki al eikezan emazte asko be. Oneik soloak lantzen ebezan eta aberastasuna ugaritu. Emazte guztiak eukezan seme-alaba asko lurreen lan nork egin eukiteko.

Emazte batek Bazio eukan izena eta ez eukan ez semerik eta ez alabarik eta orregaitik senarrak alboratu egiten eban eta senideak be izekaz artzen eben.

Errian jairen bat izaten zanean, Bazio'k lagundu egin bear izaten eban eta gero andik joan. Nekez bizi zan ba gure Bazio. Zelaira joaten zan eta bere janaria txoriakaz alkar-banutzen eban.

Egun baten etxeko semearen ezkontza-eguna zan eta asko urreratu ziran mairako. Egun orretarako andra guztiak lan asko egin bear izan eben azukera-kañaberak ebagi eta garagardoa egiteko, baita arta txikia eio eta ogiak egiteko.

Ezkontza-eguna eldu zanean, Bazio etxetik bota eben eta au, beti lez, zelaira joan zan. Andik entzuten ebazan abestiak eta bela baten karraskadea be entzun eban. Burua jazo eta gaiñean ikusi eban belea egazkadaka. Belea Bazio´ren ondora jatsi zan eta ondoan okelea itzi eutson oneri. Okela gozoa, gisatu-barria eta ketan oraindiño, eztegurako il eben zezenaren okele zan. Lentxuago ikusi eban berak belea zezena gertatzen egozan lekura jatsiten eta okelea artzen, guztiak ikaratuta egozala.

—Jaungoikoak ez dautzu emon seme-alabarik, —esan eutson beleak— baiña biotz ona daukazu gutzat eta Jainkoak berak emoten dautzu okela-zatirik onena.

Orduan konturatu zan: Ontasuna dariola daukan biotza, ez da iñoz be alboratua izango.

† OLAZAR´tar Martin´ek